

# COLORBRAIN.

---

## BALOREZKO PROPOSAMENA.


Gure proiektuaren bidez, **osasun mentala hobetzeko, lantzeko eta arazoak pairatzen dituzten pertsonak seguru eta ulertuak sentitzeko web-gune bat sortuko dugu haiei ere ahotsa emateko.** Web orrialde horretan gidak eta aholkuak jarriko ditugu baita pertsonak sentitzen dutena edo lagunduak izateko **gune anonimo** bat izango dute. Bertan, dauzkaten kekkak, pentsamenduak edota galderak bota ahal izateko. Hortaz aparte, esperientzia gune bat izango dugu pertsonak elkar komunikatzeko eta horrela erlazioak sustatuko dira. Bestalde, osasun mental arazoak dituztenentzako enfokatuta dago baina edonor sar daiteke esperientziak irakurtzera eta sortu daitezkeen galderak galdetzera.

Web horrialde horretan ere, **ekintzak** egingo ditugu online bidez, **meet** aplikazioa erabilita. Bertan, astean bi egunetan **talde terapia** egingo dugu. Egun bat goizean izango da eta bestea arratsaldean, lan egiten edo ikasten dutenentzat. Elkarrizketa horietan, edonor sar daiteke partekatuko dugun kodigoa erabiliz eta horrela sartzeko aukera egongo da. Talde terapia horietan, astero gai baten inguruan hitz egingo da bakoitzak dituen kekkak, bizipenak eta galderak egiteko. Talde terapiako gaia aukeratzeko, aurreko egunetan sare sozialetan inkesta baten bidez erabakiko dugu. Saio bakoitza bi ordukoa izango da hitz egiteko denbora izateko. Talde terapia nahi ez izanez gero, pribatuan psikologo batekin hitz egiteko aukera ere izango dugu ondoren azalduko duguna egiten.

Badakigunez, gaur egun **terapia saioak oso garestiak** direla, gure webgunearen bitartez **ekonomia ona ez dutenei edo eskuragarri ez dutenentzat aukera emango** diegu. Horretarako, gune bat izango dugu *-“premium”-* modukoa, bertan psikologo batekin hitz egiteko aukera ematen duena. Bertan honeko tarifa hauek daude:

- **PACK 1:** 4 elkarrizketa/hilabetean 50€.
- **PACK 2:** 8 elkarrizketa/hilabetean 95€.
- **PACK 3:** 12 elkarrizketa/hilabetean 140€.

Horretaz aparte, **Instagram, Tiktok eta Twitter kontuak** izango ditugu, bertan informazioa eskeini ahal izateko eta berrikuntzak igotzeko. Sare sozialetan modu labur batean webgunean igotzen ditugun gauzak publikatuko ditugu bezeroei modu errazago batean ailegatzeko. Hurrengo linkean klikatuz, zuzenean gure sare sozialetara eramango zaitu.



[Instagram](#)

[TikTok](#)

[Twitter](#)


Aurretik azaldutako guneaz aparte, beste gune batean, **produktuen salmenta edukiko** dugu. Bertara produktu batzuk igoko ditugu, hala nola, kamisetak, totte bag, katiluak, kamisetak, sudaderak, txapak, libretak edo kuadernoak eta egutegiak. Dena eskuz egingo dugu helburu jakin batekin. Koadernoak adibidez, sentimenduak, pentsamenduak edo eguneroko bezala erabiltzeko aukera ona dela uste dugu. Honako prezio hauek jarriko ditugu:

- **Sudaderak:** 18€
- **Kamisetak:** 15€
- **Egutegiak:** 12€
- **Totte bag:** 12€
- **Katiluak:** 10€
- **Libretak edo kuadernoak:** 10€

- **Txapak eta pegatinak:** Dohainik.

Salmenta hauek aurrera eramateko, online bidez egingo dugu. Hau da, web gunean beste atala bat izango dugu bertan produktuak ikusteko eta eskatzeko aukera izango duena. Paketeak guk bidaliko ditugu Euskal Herritik zehar eta Euskal Herritik kanpo. Baita eskariak guk kudeatuko ditugu.

Proiektu honekin, ahalik eta pertsona gehien lagundu nahi ditugu haien egoera soziala, mentala eta ekonomikoa kontuan izanda. Dakigun bezala geroz eta pertsona gehiagok osasun mental arazoak pairatzen dute, eta horregatik haien egoera gertuagotik ezagutzeko honako formulario hau egin dugu.



Gure proiektua modu argiago batean ezagutzeko eta aurretik azaldu duguna hobeto ulertzeko, jarraian QR bat jarri dugu web orrialde hori eskuragarri izateko. Jarraitu beharreko pausuak oso errazak dira, soilik telefonoa erabiliz QR eskaneatu behar da eta zuzenean bertara eramango zaitu. Baina erraztasunak izateko, testu honen amaieran web orrialdearen linka jarriko dugu badaezpada ere.



Laburbilduz, linka klikatuz edo QR-a eskaneatuz gure proiektuaren emaitza ikusi daiteke.

[ColorBrain web orrialdea](#)